



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA 2004ko uztailaren 29ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

IDOIA NOBLE GOIKOETXEA and.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta lauko uztailaren hogeita bederatziko iluntzeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a Victoria Erkiaga Aranguena andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2004KO MAIATZAREN 27KO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, udalbatzaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **aho batez**, 2004ko maiatzaren 27ko bilerako akta onetsi du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

2.- 2004. URTERAKO SOLDATEN IGOEREI BURUZKO ERAKUNDE ARTEKO ERABAKI-PROPOSAMENA: 2004ko uztailaren 13an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 558/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak emandako 73 zenbakidun irizpena, 2004ko uztailaren 6koa, gai honi buruzkoa da:

Batzorde honen azken bileran, izenburuan adierazitako izenburua zuen EUDELeK egindako agiria eman zien batzordeburuak batzordekideei.

Gauzak horrela, ekainaren 22an udaleko enplegu-mahaia eratu zela jakinarazi zen; horri, aipatutako erabaki-proposamena aurkeztu zitzaion, baina sindikatuen ordezkariak ez zuen onartu; horrela bada, ELA eta LAB sindikatuek horretarako onetsitako proposamena aurkeztu zion erakundeari.

EAJ-PNVren ordezkariak EUDELeK aurkeztutako erakunde arteko erabakia sinatzea proposatu zuen; hona hemen testua, hitzez hitz:

*“ACUERDO INSTITUCIONAL SOBRE LOS INCREMENTOS RETRIBUTIVOS
PARA EL AÑO 2004*

PRIMERO

Este acuerdo extenderá sus efectos desde el primero de enero de 2004 hasta el 31 de diciembre de 2004.

SEGUNDO

Se aplicará un incremento retributivo general para el año 2004 de un 2% sobre las retribuciones íntegras anuales del año 2003 para el personal de las instituciones locales y forales vascas.

TERCERO

Independientemente de lo anterior se aplicará para el año 2004 individualizadamente a dicho personal el incremento de la repercusión en las pagas extraordinarias del complemento de destino en la cuantía prevista en la legislación básica presupuestaria de aplicación, y en cantidad análoga al personal laboral.

CUARTO

Asimismo, de conformidad con lo establecido en la legislación básica presupuestaria de aplicación, se establece un fondo adicional destinado a remunerar mejoras tangibles en la consecución de objetivos así como incrementos sustanciales en la eficacia y responsabilidad de los puestos de trabajo.

QUINTO

Se mantendrán en el año 2004 las aportaciones que se realizan a los planes de pensiones. El importe conjunto de los incrementos retributivos previstos en los acuerdos tercero y cuarto será para el año 2004 como máximo del 1,2% de la masa salarial de la institución.

SEXTO

En cuanto al resto de condiciones laborales del personal, se mantendrán en idénticos parámetros de homogeneidad de acuerdos precedentes y sin margen para su modificación por parte de ninguna Administración Local.

SÉPTIMO

Así mismo, se acuerda trasladar los acuerdos anteriores a las mesas de negociación que preceptivamente se convoquen en cada institución como paso previo a su promulgación mediante acuerdos de los órganos competentes.

OCTAVO

La parte institucional desea hacer público su compromiso de plantear y negociar con los interlocutores sindicales una propuesta completa de nuevo marco regulador de las relaciones laborales en las instituciones forales y locales de la Comunidad Autónoma Vasca, a partir de los principios y objetivos formulados en las bases recientemente aprobadas, con el deseo de que sea posible recuperar el consenso con las representaciones sindicales sobre el mismo.”



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

“2004. URTERAKO SOLDATEN IGOEREI BURUZKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA

LEHENENGOA

Hitzarmen hau 2004ko urtarrilaren batetik 2004ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

BIGARRENA

Oro har, 2004. urterako soldatak %2 igoko dira, Euskadiko toki eta foru erakundeetako langileentzako 2003ko urteko soldata osoen aldean.

HIRUGARRENA

Aurrean azaldutakoa alde batera utzita, 2004. urtean langile horiei banan-banan ezarriko zaie lanpostu-mailako osagarriak aparteko ordainsarrietan duen eraginaren gehikuntza, aplikatu beharreko oinarritzko aurrekontu-legerian aurreikusitako zenbatekoaren arabera eta lan-kontratuko langileei dagokien kopuru berean.

LAUGARRENA

Era berean, ezarri beharreko oinarritzko aurrekontu-legerian xedatutakoaren arabera, fondo gehigarria eratzten da, helburuak betetzeko hobekuntza nabarmenak eta lanpostuen eragingarritasuna eta erantzukizuna handitzeko jarduera nabariak saritzeko.

BOSGARRENA

2004. urtean, pentsio-planetara egiten diren ekarpenei utsiko zaie. 2004. urteari begira, hirugarren eta laugarren erabakietan aurreikusitako soldata-igoerei dagokien zenbateko orokorra erakundearen soldata-multzoaren %1,2koa izango da gehienez ere.

SEIGARRENA

Langileen gainerako lan-baldintzei dagokienez, aurreko hitzarmenetako homogeneousotasun-parametroei utsiko zaie, eta toki-administrazio batek ere ezin izango ditu aldatu.

ZAZPIGARRENA

Era berean, aurreko erabakiak erakundeetan halaberrez deitutako negoziaketa-mahaietan aurkeztuko direla hitzartzen da, organo eskudunen erabakien bidez promulgatu baino lehen.

ZORTZIGARRENA

Erakunde-alderdiak jendaurrean adierazi nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki erakundeetako lan-harremanak arautzeko esparru berrirako proposamen osoa sindikatueta solaskideekin egiteko eta negoziatzeko konpromisoa hartzen duela, onartu berri diren oinarrietan jasotako printzipioak eta helburuak kontuan hartuta. Horrela, bada, arautzeko esparru berriaren gaineko adostasuna berreskuratu ahal izango da sindikatueta ordezkariekin.”

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio EUDELeK bidalitako erabakiari eta ondoreak izango ditu 2004ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan xedatutakoa betez, gai hau udalaren osoko bilkurak aztertzeke ipiniko da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

EUDELeK aurkeztu duen soldaten igoerari buruz hartutako Erakunde Arteko Akordioaren alde daudela adierazi du eta, beraz, bat datoz berau Leioako Udalean aplikatzearekin. Langileentzako akordio ona dela uste dute, eta gainera EAeko foru eta tokiko erakundeetako langile guztientzat ezarri da. Hori dela-eta, bere ustez, erantzukizun politikoarekin eta sozialarekin jokatu da eta, hortaz, akordioaren aldeko botoa emango dute.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

EAKo Angel Ernesto Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:

Gai honetan aldeko jarrera duela berresten duela adierazi du, baina hala ere, datorren urtean estamentu guztien arteko negoziazioa egiteko modua izatea espero duela esan du. Negoziazioa EUDELen baitan egitearen aldekoak direla zehaztu du, baina sindikatu guztien adostasuna ere behar da.

IU-EBko Iñaki Gomendiorrutia Sainz jaunak honakoa adierazi du:

Gai honetan abstenituko direla esan du, printzipioz ezin baitaitezke ados egon akordiorik lortu ez dela ikusita, eta akordioetara iristeko borondate falta bat baino gehiago izan dela uste dute. Ez da ona alderdi politikoek inposizioa erabili behar izatea, baina hala ere ez daude oso konforme zentroen arabeko negoziatzeko dinamikarekin, sektoreen edo lurraldeen arabeko negoziazioaren aldeko jarrera izan dutelako beti, dinamika sindikal hobea dela uste baitute. Baina, hala ere, badira faktore batzuk sindikatuenak ehuneko ehunetan ez direnak, eta faktore horiek 2002/2003ko akordioa inposatzen lagundu dute, hain zuzen ere zentroen arabeko negoziazioaren aldeko politikari jarraituta. Ez dute uste edukia bereziki txarra denik, baina haien iritziz ez da biderik onena. Erakundeetako ordezkariak 2005eko negoziazioa izateko ahalegin handiak egin beharko lituzkete, eta halaxe esan du, EUDELe egin beharrean, erakundeetako ordezkarien eta langileen ordezkariak egin beharko luketelako negoziazioa.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Berbaldi laburra egingo duela esan du, bere alderdiak behintzat Erakunde-arteko Mahaian esan beharrekoak esanda dituela uste duelako. Mahaian esandakoari eutsiko dionez gero, aldeko botoa emango du, eta beti halaxe egin dutela esan behar da: EUDELen mailako baterako negoziazio kolektiboaren aldeko joera handiagoa dutela udalez udaleko negoziazioaren alde baino, administrazioz administrazioko negoziazioan galtzaile ateratzen direnak langileak direla iruditzen baitzaie. Azkenik esan du 2005eko akordioa denen artekoa izatea espero duela, beste guztiek gura duten moduan.

Alkate jaunak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Horri dagokionez esan du, lehenengo eta behin, herri honetako ordezkariarik gehienak hartu den erabakiaren alde daudela azpimarratu behar dela, ia guztiak daudela erabakiaren alde, ez baita oposiziorik egon; herri honetako ordezkariarik gehienak bat datoz erabakiarekin eta horrek balio politikoa du berez, are gehiago, Ezker Batuaren jarrera aldekoa da oso oposizio zehaztua eginez. Ondo egin du oposizioa Iñaki Gomendiourrutia jaunak, eta hemen ez du zertan bere argudioak azpimarratu. Horrek guztiak balio argia du. Bigarrenik, uste du berak ere hurrengo ekitaldian benetako negoziazioa izateko nahia agertu behar duela, benetan, ez baitago negoziatorik batek gura ez badu, eta zoritxarrez aldi honetan ez da posible izan. Etorkizunean posible izatea espero du.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hemeretzi boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, PPko lau zinegotzienak eta EAKo zinegotziarena. Era berean, abstentzio bi egon dira, EB-Berdeak taldeko ordezkariak. Ondorioz, Udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** 2004. urterako soldaten igoerei buruzko erakunde arteko erabaki-proposamena **oneste**.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

3.- RUBÉN BELANDIA FRADEJAS IU-EBKO ZINEGOTZI JAUNAK IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA UDAL TALDEAK EZKER BATUA-BERDEAK IZENA HARTZEARI BURUZ AURKEZTUTAKO IDAZKIA:

2004ko uztailaren 27an Barne Araubideko Informazio Batzordeak hartutako 77/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Uztailaren 20an, Alkatetza-Udalburutzak 523/04 zenbakidun dekretua eman zuen; honakoa dio, hitzez hitz:

“Ruben Belandia Fradejas jaunak, udal honetako IU-EBko zinegotziak, idazki bat aurkeztu du (sarrera-erregistroan 4334/04 zk.) euskara hutsean, eta idazki horrek dakarrenez, Ezker Batua-IUK uztailaren 3an eta 4an egindako IV. Biltzar Nagusian alderdiaren izen ofiziala aldatzea proposatu da: izen berria EZKER BATUA-BERDEAK izango da. Hortaz, Leioako udal taldearen izena ere aldatzeko eskatu du.

*Aurrekoarekin bat etorrira, **HONEN BIDEZ** jakinarazi behar dizut idazkia aurkeztu izanaren berri badudala; idazki horretan, IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA udal taldearen izena aldatzeko eskatzen da: izen berria **EZKER BATUA-BERDEAK** izango da, eta dekretu horren berri eman behar zaio Barne Araubideko Informazio Batzordeari, ebazpena eman dezan eta gaia Udalaren lehenengo Osoko Bilkuran azter dadin.”*

Barne Araubideko Informazio Batzordea aipatutako idazkia aurkeztu izanaren eta Alkatetzak emandako 523/04 zenbakidun dekretuaren jakinaren gainean gelditu da, eta dekretua osoko bilkuran aztertzekeo jarri beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatza, osoko bilkuran, IU-EBren izen aldaketaren **jakinaren gainean gelditu** da; izen berria Ezker Batua-Berdeak izango da.

4.- KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA; MOTA: UDAL AURREKONTUAREN 3/2004 ZK.KO KREDITU OSAGARRIA:

2004ko uztailaren 20an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 586/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak emandako 153 zenbakidun irizpena, 2004ko uztailaren 14koa, gai honi buruzkoa da:

Aztertu da batzordeari kredituak aldarazteko egin zaion proposamena; diruzaintzako gerakin likidoari egotziko zaion kreditu osagarriaren bidez aldaraziko da, hain zuzen ere, kreditua.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera eta aurrekontua betearazteko udal arauaren 4.f) oinarriaren arabera, kreditu osagarriak honela finantza daitezke:

- a Diruzaintzako gerakin likidoari egotziz.
- b Batu diren diru-sarreraren bidez edo gehiegizko diru-sarreraren bidez.
- c Beste aurrekontu partida batzuetako deuseztapen edo baxen bidez.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Hona hemen kreditu gehikuntza zenbatekoa izan den eta nola finantzatuko den:

KREDITU OSAGARRIA

AURREKONTUKO PARTIDA	IZENDAPENA	GEHITUKO DEN KOPURUA
00300/1211/62900	Inbentarioan sar daitekeen materiala, Idazkaritza	700,00 €
00500/32202/62900	Inbentarioan sar daitekeen materiala, Ofizio Etxea	4.000,00 €
00600/1221/62900	Inbentarioan sar daitekeen materiala, Bake Epaitegia	2.000,00 €
00600/1221/22690	Gastu orokorrak, Bake Epaitegia	5.000,00 €
00700/5111/77100	Jabeen Erkidegoen diru-laguntzak	173.125,37 €
01100/1217/62900	Inbentarioan sar daitekeen materiala, Informatika Zerbitzuak	8.728,00 €
01100/91140/22699	Bestelako gastuak	2.000,00 €
GUZTIRA		195.553,37 €

FINANTZIAZIOA

AURREKONTUKO KONTZEPTUA	IZENDAPENA	ERABILITAKO KOPURUA
87001	Gerakinak sartzea	195.553,37 €

Udalaren osoko bilkurak du espediente hau onesteko eskumena, halaxe xedatu baita aurrekontua betearazteko udal arauan.

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak bidezkotzat jo zuen adierazitakoa:

- 1 Irizpen honetan aipatzen den bezala, udal aurrekontuaren 3/2004 zenbakiko kreditu osagarriaren bitartez kredituak aldatzeko espedientearen aldeko irizpena egingo da.
- 2 Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergai zerrendan gai honen ebazpena sartuko da.
- 2 Espedientea jendaurrean egongo da ikusgai hamabost eguneko epean eta horren berri emateko, aurretik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da; epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte; jendaurrean ikusgai egon den bitartean inork ez balu erreklamaziorik aurkeztu, espedientea behin betiko onetsitakotzat hartuko litzateke; hori guztia Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa oinarritzat hartuta.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **aho batez**, udal aurrekontuaren 3/2004 zenbakiko kreditu osagarriaren bitartez kredituak aldatzeko espedientea **onestea erabaki** du, Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

5.- HAINBAT URTETARAKO GASTUAK, KULTURA ARLOAK ESKATUTA: 2004ko uztailaren 20an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 587/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak emandako 154 zenbakidun irizpena, 2004ko uztailaren 14koa, gai honi buruzkoa da:

Udalaren Kultura Arloak zerbitzuaren beharrizan batzuk betetzeko hainbat urtetarako kreditu erreserba batzuk onetsi beharra dagoela jakinarazi dio Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeari.

Horri dagokionez, hauexek dira aipatu diren beharrizanak:

1 Leioako Lehen Gazte Plana egitea; guztira 46.401,13 €-ko zenbatekoa du.

Gastua bi alditan egiteko baimena ematea proposatzen dute:

2004. urtea (8 hilabete)	32.810,53 €
2005. urtea (4 hilabete)	13.590,60 €

Xedatutako aurrekontuko partida:

00900/4811500/45180 Gazteen ekintzetarako dirulaguntzak.

2 4 fotokopiagailu erostea Kultur Etxerako; guztira 539,77 € dira hilean renting-kuotako 48 hiletan (erosteko aukerarekin).

Gastua bi alditan egiteko baimena ematea proposatzen dute:

2004. urtea (4 hilabete)	2.159,08 €
2005. urtea (12 hilabete)	6.477,24 €
2006. urtea (12 hilabete)	6.477,24 €
2007. urtea (12 hilabete)	6.477,24 €
2008. urtea (8 hilabete)	4.318,16 €

Xedatutako aurrekontuko partida:

00900/20901/45020 Ibilgetu materialaren errentamenduak.

3 UPV-EHUko Demografia Historikoko Departamentuak Leioako Udalari aurkeztu dion **ikerketa proiektua**. Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordeak emandako 141 zenbakidun ebazpenaren bidez aldeko irizpena eman da EHUK aurkeztutako ikerketa proiektuari buruz. Proiektuak honako izenburu hau izango du: *LEIOA: Gizarte tradizionaletik industriaren ondoko gizartera, XIX eta XX. mendeak. Biztanleria, hirigintza, gizarte aldaketa, emakumea eta familia*

Gastua hiru alditan baimentzea proposatzen dute:

2004ko iraila-2005eko abuztua.....	18.000,00 €
2005eko iraila-2006ko abuztua.....	16.237,00 €
2006ko iraila-2007ko iraila.....	18.000,00 €

Xedatutako aurrekontuko partida:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

00800/6290100/55990 Ikerketak eta proiektuak (EHU Kaleko Artea).

Tokiko Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 6. Titulua garatu duen apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 79. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren eredura, Udalaren osoko bilkurari dagokio hainbat urtetarako gastuak baimentzea eta xedatzea. Era berean, osoko bilkurak 4 urteko mugak eta ehunekoen mugak igo ditzake urte bakoitzerako, Errege Dekretuaren 82. artikuluan ezarritako mugak hain zuzen.

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak egoki irizten dio honakoak egiteari:

- 1 Onetsi egingo dira Ebazpen honetan aipatzen diren hainbat urtetarako gastuak.
- 2 Udalaren hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan gastu horiek onesteari buruzko puntua erantsiko da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **aho batez**, Kultura Arloak eskatutako hainbat urtetarako gastuak onestea **erabaki du**, Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordearen ebazpenean agertzen denaren arabera.

6.- TOKIKO JAIK 2005. URTERAKO ZEHAZTEA: 2004ko uztailaren 27an Barne Araubideko Informazio Batzordeak hartutako 76/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Informazio Batzorde honek, uztailaren 6an egindako batzarrean, 69/04 zenbakidun ebazpena hartu zuen. Hona hemen ebazpenak dioena:

“Ekainaren 21eko 125/04 Dekretuaren bidez (EHAA, 125 zk., 2002-07-02koa), Autonomia Erkidegoaren 2005eko Lan Egutegia onetsi da. 1. artikuluan ezarri denez, egun baliogabetzat hartzen dira urteko igande guztiak eta honako jai egun hauek:

- *Urtarrilaren 1a, Urte berri eguna.*
- *Urtarrilaren 6a, osteguna, Epifania eguna*
- *Martxoaren 24a, Ostegun Santua.*
- *Martxoaren 25a, Ostiral Santua.*
- *Martxoaren 28a, Pazko Astelehena.*
- *Maiatzaren 2a, astelehena, Langilearen Egunari dagokion jai eguna.*
- *Uztailaren 25a, astelehena, Santiago Apostolua.*
- *Abuztuaren 15a, astelehena, Amabirjinaren Jasokundea.*
- *Urriaren 12a, asteazkena, Espainiako Jai Nazionala.*
- *Azaroaren 1a, asteartea, Domu Santu eguna.*
- *Abenduaren 6a, asteartea, Espainiako Konstituzioaren Eguna.*
- *Abenduaren 8a, osteguna, Sortzez Garbiaren eguna.*



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Gainera, 2. artikulua dakarrenez, 2005ean gehienez bi egun izango dira lan egiteko egun baliogabeak tokiko jaietarako, ordaindu egingo direnak eta ezin berreskura daitezkeenak. Bi egun horiek Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako lurraldeko ordezkariak ezarriko dituzte, udalen osoko bilkurek proposatuta. Udalek beren proposamenak egin eta egokitzen zaien Lurralde Ordezkaritzara bidali beharko dituzte proposamenok hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta ondorengo egunetik hasita, artikuluan ezarri denez.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak hauxe erabaki du:

1.- Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordeak 2005eko tokiko jai eguna jartzeko proposamena egingo du, baina kontuan hartu behar da abuztuaren 3a baino lehen proposamenaren berri eman beharko zaiola Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzari.

2.- Tokiko jai egunari buruzko proposamena eginda, langileen ordezkarietako organoek 2005eko lan egutegirako beren alternatiba aurkeztuko dute."

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzak aurkeztutako idazki bat jaso da uztailaren 21ean (sarrera-erregistroan 4374/04 zk.), eta bertan gogorarazten denez, tokiko jai egunari buruzko proposamena jakinarazi behar zaio Ordezkaritzari, hileko eguna eta jai egunaren izen zehatza jarrita. Bestalde, Bizkaiko herri guztietan aplikatu beharreko tokiko jai egunari dagokionez, Ordezkaritzak jai eguna uztailaren 4an jartzea (San Valentin Berriotxo) proposatzen da, astelehenean, 2005ean uztailaren 31 igandea dela-eta.

Batzordeari jakinarazi zaionez, Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordearen batzarra egin ez denez gero eta gai hau Udalaren uztailleko osoko bilkuran berresteko interesa dagoela-eta, komenigarria izango litzateke Batzordeak 2005eko tokiko jai egunari buruzko proposamena egitea.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak ekainaren 24a proposatu du 2005eko Leioako jai egun moduan, San Juan eguna, eta irizpen hau Udalaren osoko bilkuran aztertu behar da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **aho batez**, herriko jai eguna ekainaren 24a izatea erabaki du 2005. urterako, San Juan eguna, baita erabakia Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailari bidaltzea ere, jakinaren gainean egoteko eta ondorioak izan ditzan.

7.- EAJ-PNV-K SESTAOKO LA NAVAL ENPRESAREN GATAZKARI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA: 2004ko uztailaren 27an Barne Araubideko Informazio Batzordeak hartutako 78/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

EAJ-PNVko Udal Taldeak Sestaoko La Naval ontziolaren gatazkari buruzko mozioa (sarrera-erregistroan 4394/04 zk.) bidali du, Eusko Jaurlaritzak uztailaren 18an sinatutako akordioaren arabera. Akordio horren testu osoa hauxe da, euskaraz eta erdaraz:

"ERABAGIA (Eusko Legebiltzarrak joan dan 2004ko bagilaren 18an hartu eban Erabagiagaz bat egiten aduana)

1. Sestaoko La Naval zarratzea ezartzen dauan edozein lan-hipotesiren aurka gagozala adierazotea. Aldi berean, esaten dogu oso arduratuta gagozala bai enpresek berak eta baita La Naval ontziolako behargin guztiek eta itsasgintzako arlo osagarria eratzen daben enpresek bizi daben egoeragaz.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

2. *Gobernu Zentralari agindua emotea egoera honi aurre egiteko sortu dan Ministerioen Arteko Batzordearen bitartez Sestaoko La Naval Ontziolearen (IZAR) iraupena bermatuko dauan Plana egin daian. Plan honi irizpide industrialen arabera egingo da eta kontuan hartuko dau Sestaoko La Navalek goi-prezisinoko teknologiadun itsasontzien eraikuntzan beti frogau dauan ezagutza eta eragingarritasunaren benetako indarra. Aldi berean, planak bai jardurea eta baita eskaeren-karterearen gehikuntza ekarriko dau.*
3. *Euskal Erakundeei -Eusko Jaurjaritza eta Bizkaiko Aldundia- agindua emotea Gobernu Zentralagaz eukiko daben alkarrizketearen bidez Sestaoko La Navaleko (IZAR) gure ontzioleak bizi dauan krisi egoerea arintzeko urtenbideak bilatu daiezan.*
4. *IZAR-eko eta SEPI-ko zuzendaritzei agindua emotea Sestaoko La Naval-en ganeko erabagiak hartzerakoan Euskal Erakundeen borondatea eta asmoa kontuan hartu daiela, eta baita ontziola horretako beharginen eskuordetzaren erabagiak be.*
5. *Estaduko Gobernuari eta Europako Batasuneko erakundeei agindua emotea Europako ontzigintzaren aldeko defentsa aktiboa egin daien eta, horretarako, berehala Asiako estadu batzuetako, esaterako Koreako, ontzioletan lehiakortasun desleial eta laguntza publikoen sistemei aurre egiteko beharrezko neurriak hartu daiezan.”*

“ACUERDO (en consonancia con el Acuerdo alcanzado en el Parlamento Vasco, el pasado 18 de junio de 2004)

1. *Mostrar su rechazo frontal a cualquier hipótesis de trabajo que contemple el cierre de La Naval de Sestao, así como su preocupación por la situación que atraviesa tanto la empresa, como el conjunto de los trabajadores y trabajadoras de La Naval y de todas las empresas que componen el sector auxiliar marítimo.*
2. *Instar al Gobierno Central a que, a través de la Comisión Interministerial creada para abordar esta situación, elabore un Plan que garantice la continuidad del Astillero de La Naval de Sestao (IZAR), desde criterios industriales y teniendo en cuenta el verdadero potencial de conocimiento y eficiencia mostrados por esta empresa en la construcción de buques dotados de tecnología de alta precisión, e impulse mientras tanto el incremento de la actividad y de la cartera de pedidos.*
3. *Instar a las Administraciones Vascas –Gobierno Vasco y Diputación de Bizkaia- a que a través del diálogo con el Gobierno Central, contribuya a la búsqueda de soluciones que favorezcan la salida de la crisis que vive nuestro astillero de La Naval de Sestao (IZAR).*
4. *Instar a la Dirección de IZAR y a la SEPI para que, a la hora de tomar decisiones sobre La Naval de Sestao, cuente con la voluntad y el acuerdo de las Instituciones Vascas y de la representación de los trabajadores y las trabajadoras del astillero.*
5. *Instar al Gobierno Central y a las Instituciones de la Unión Europea a que ejerzan una defensa activa del sector naval europeo, apoyando y reforzando cuantas acciones sean necesarias en relación con la competencia desleal y los sistemas de ayudas públicas a los astilleros en países como Corea y otros estados asiáticos.”*

Barne Araubideko Informazio Batzordea aurkeztutako mozioaren jakinaren gainean gelditu da, eta irizpen hau Udalaren Osoko Bilkuran aztertzeko jarri behar da.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Mozioaren aldeko botoa emango dutela adierazi du, bost puntuekin bat datozelako, eta 5. Puntua azpimarratu nahi du; izan ere, Madrilgo Gobernuari eta Europar Batasuneko Erakundeei Europako ontzigintzaren alde gogor egiteko eskatzen zaie, lehia desleialaren eta Korea eta Asiako beste estatu batzuei ematen zaizkien dirulaguntza publikoen sistemen inguruan beharrezkoak diren ekintza guztiak bultzatuta eta indartuta, zentzugabekoa baita Europako ontziolak ixtea eta esklabo lanari esker egindako itsasontziak erostea, Europako enpresek itsasontziak erabili eta pleita ditzaten; zentzurik ez duela iruditzen zaie.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Nolanahi ere, Euskadiko Alderdi Sozialista presio guztiak egiten ari da. Harreman guztiak izaten ari da eta baliabide formal eta informal guztiak erabiltzen ari da ontziolak ez ixteko, ontziola bat bera ere ez ixteko, Sestaoko ontziola ez ixteko, hark adierazi duenez. Bestalde, ontziolako langileekin edo langile guztiekin duten konpromisoa ez ezik, ontziolatik bizi diren familia askorekin bere alderdiak hartu duen konpromisoa ere adierazi nahi du.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Aurkeztu den testuarekin bat datorrela agertzeko hitz egingo duela esan du; izan ere, Eusko Legebiltzarraren erabakiaren bermea du testuak. Gainera, erabaki horretako bost puntuarekin bat datozela adierazi nahi dute, eta lan eta gizarte arazo larri horren aurrean, inplikaturik dauden erakunde eta eragile guztiek norabide berean eman behar dute laguntza, hain zuzen ere Sestaoko La Naval ontziolak bere jarduna berreskuratzea eta gainera jardunari eutsiko zaiola bermatzea. Ildo horretan, konpromisoa eta elkartasuna adierazi nahi dizkiete La Naval ontziolako langileei eta familia guztiei.

Eako Angel Ernesto Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:

Guztiz bat dator mozioarekin, eta penagarria iruditzen zaio La Naval ontziolako prozesuak azken urte hauetan izan duen egoera. Ez da ez errudunik ez eragilerik izendatu beharrik, berak adierazi duenez, baina historia tristea da, bideratzeko beste modurik ez zuen: horrela amaitu behar zuen, Espainiako estatuak, garai batean, ez zituelako bultzatu La Naval ontziolak historia ederragoa izateko beharrezkoak ziren neurriak.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta aho batez, EAJ-PNVk Sestaoko La Naval ontziolaren gatazkari buruz aurkeztutako mozioa onestea **erabaki du**.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2004-06-24TIK 2004-07-23RA: Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatezak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu da, baina jarraian adierazi den zehaztapena egin da:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Alkatezak 508 zenbakiko Dekretua eman zuen uztailaren 15ean, eta dekretu horretan esaten denez, Kultur Leioa abian jarri zenez eta jarritako ekipamendu batzuetan dauden akatsak ikusita (telefonía, megafonia, datuen sarea eta ahotsa, ikus-entzunezkoak, zaintzako bideoa), aurrekontuko ekipamendua egiaztatu behar izan da, eta berriro programatu eta behin



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

betiko taxutu behar izan da. Hori dela-eta, 9.373 €-ko kopurua ordaindu behar izan dio Udalak Red XXI Comunicaciones enpresari; beraz, ez zaie normala iruditzen obra egin berria izanda Udalak agertu diren akatsak ordaindu behar izatea, edozein obratan ager daitezkeen akatsak. Hori dela-eta, egindako lanek akats horiek edo geroari begira ager daitezkeen akatsak estaliko dituen berme-eperik duten jakin nahi dute.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak honakoa adierazi du:

Proiektuak ez dakartzan kontu batzuez ari dela uste du, batez ere konexio digitalei eta telekomunikazioko elementuei dagokienez; izan ere, proiektuak elementuok ez zekartzanez, beharrezkoa zen horiek ezartzea. Hala ere, espedientea aztertuta, idatziz eman diezaioke erantzuna, edo bestela berbaz Kulturako lehenengo Informazio Batzordean.

14.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

15.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Atal honetan ez da eskari ez galderarik egin.

Eta iluntzeko zortziak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,